

## **KOSTUEN EGITURA**

Gure enpresa aurrera ateratzeak, mota ezberdinetako kostuak dakartza:

- Lan egiteko eta ofizinetako behar dugun lokalaren alokairua:
  - Lehen bi urteetan, Uggasak utzita, hilabetean 40€ (argindarra, ura, alkilerra eta wifia barne) ordaindu beharko genituzke.
- Publizitatea:
  - Internet, irrati eta aldizkarietan publizitatea izateko inbertsioa: 1200€
- Erreparazioak egiteko materialez aparte tresneria ere beharko dugu, (ezagun baten laguntzarekin):
  - Tresnerian inbertsioa: 5000€
- Aseguru enpresa batekin hitz egin dugu eta akordio batetara iritsi gara, Mapfreekin:
  - Seguruaren kostua: 1200€ urtean (100€ hilabetean).
- Laboral kutxa bankuan, 2000€-ko mailegu bat ere eskatu beharko dugu, ondoren %3,5 interesak ordaindu beharko ditugu.
- Hasieran soldata baxuak izango ditugu, eta ez teknikari guztiekin.

Bestetik, kostu aldakorrak ditugu; ekoiztutako produktu edo zerbitzuen kopuruaren arabera aldatzen direnak. EKOZIR enpresak dituen mota honetako kostuak:

- Konponketak egiteko beharko ditugun materialak, Euskal Herriko 3 enpresa desberdinei erosiko dizkiegu.
- 100 erreparazioko 700€ kobratuko ditugu, bataz besteko 3-4 euroko kostua izango dugu
- Garraioan ere kostuak izango ditugu, baina hau kargaren pisua eta produktua nora bidaltzen dugun arabera doanez ez da erraza aurreikuspen bat egitea.

Hilabetero 600 - 650 konponketa egiten baditugu, 54.600 euroko irabazi garbiak edukiko genituzke, 56.200 euro inguru publizitatea barne. Irabazi horiei gure urteroko kostu totala kentzen badiogu (gastu totalak 48.500 izango dira), 7.300 euro inguruko irabazi garbiak edukiko ditugu urtean. Beraz, gure enpresa oso bideragarria dela esan ahalko genuke, nahiz eta bigarren urterako gure helburua irabazi garbiak altuagoak izatea den.

**EKOZIR**